

GIZARTEEN ANTOLABIDE POLITIKOA

Lurraldea:

- ✓ Estatuaren elementu fisikoa, honek bere gainean aginpidea erabiltzen duena.
- ✓ Estatu baten legeak aplikatzen diren eta bere erakunde politikoek boterea duten lur, aire eta itsas eremua.

Konstituzioa:

- ✓ Funtsezko lege multzoa, bozketaz ezarria, gobernu forma zehaztu, herritarren eskubide eta betebeharrak ezarri Estatuaren organo eta funtzionamendua definitzen dituena.
- ✓ Estatu baten ekintza politiko, sozial, ekonomiko, etab. osoki erregulatzen duen arau nagusia. Eskuarki idatzia izan ohi da, eta lehen mailako izaera du. Bi zati nagusiz osatzen da: *organikoa*, botereen arteko harremanak erregulatzen dituena, eta *dogmatikoa*, hiritarren eskubide eta betebeharrak finkatzen dituena.

Funtzionarioa:

- ✓ Bere lanpostua oposaketaren bidez lortzen duen pertsona.
- ✓ Administrazio Publikoan eta Justizia Administrazioaren zerbitzuan finko diharduen langilea.

Subiranotasuna:

- ✓ Agintearen erabilera.
- ✓ Estatuari aitortzen zaion goreneko boterea, lurralde nazionalarekiko eskuduntza eskusiboa ematen diona eta nazioartean, bere araudiek mugatzen ez dioten neurrian, independentzia ematen diona.
- ✓ Zenbait botereren ezaugarria, beste boterekiko menpekotasunik ez izatean eta, beraz, autoritaterik gorena izatean datzana.

Erreferenduma:

- ✓ Gobernuak herritarrei gai baten inguruan egiten dien kontsulta.
- ✓ Sufragio unibertsalaren bidez hiritar guztiei ordezkari politikoek alde aurretik prestatutako proposamena onartzea edo gaitzestea ahalbidetzen dien bozketa-prozedura.

Hauteskundeak:

- ✓ Herritarrei egindako kontsulta, euren ordezkari politikoak aukera ditzaten.
- ✓ Karguak, eta bereziki herriaren ordezkari eta mandatariak hautatzeko botazioa.

Demokrazia:

- ✓ Burujabetasuna herrian datzan gobernu forma; herritar adindunek agintariak hautatzen dituzte.
- ✓ Boterea herriarengan datzala dioen doktrina politikoa; doktrina horren arabera gobernu-era.

Monarkia:

- ✓ Aginte gorena erregea edo erregina den gobernu forma.
- ✓ Gobernuburua erregea edo erregina duen sistema politikoa.

Botere judiziala:

Legea betearazteko eginkizuna duen Estatuaren boterea.

Kulturaniztasuna:

Giza talde ezberdinen bizikidetzaren defendatzen duen pluralismo kulturala.

Masa-kultura:

Kontsumo-ereduen homogeneizatzeari datzan kultura forma.